

**UNESCO ETXEKO OHOREZKO BAZKIDEEN AHOLKULARITZA
BATZORDEAREN BI URTEAN BEHINGO V. TOPAKETA
2013ko irailaren 21a, Bilbo
Bakearen Nazioarteko Eguna**

**“HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ERANTZUKIZUNA
DEMOKRAZIA HOBE BATERAKO”
ADIERAZPENA**

Parte-hartzea, erantzukizuna, etika eta gardentasuna dira herritarrok eta erakundeok tokiko bertako eta mundu osoko gizartean, politikan eta ekonomian erabili behar ditugun balioak.

I. SARRERA

1.1. Zalantza handiko garai baten amaiera bizi dugu, bai arlo ekonomikoan, bai eta gizartearen eta politikaren arloetan ere. Estatuak ezin izan diete behar bezala erantzun gaur egun ditugun erronkei. 80ko hamarkadan, neoliberalismo globalizatzaileak balio etikoak alde batera utzi eta merkatua jarri zuen haien ordean, eta Nazio Batuen Erakundea alde batera utzi eta alderdi plutokratikoak jarri zituen haren ordean. Gobernantza berri bat behar dugu, gehiago dakiena eta gizarte-kohesio handiagoa sortuko duena. Irtenbidea demokrazia gehiago jartzea da, demokrazia hobea; hau da, modu demokratikoagoan jokatzeko maila pertsonalean, tokian bertan, autonomia-erkidegoan, herrialdean, eskualdean eta nazioartean.

1.2. Joan den urtean, Nazio Batuek zenbait galdera egin zizkiguten, irailaren 15eko Demokraziaren Nazioarteko Eguna zela eta: Zer espero dezakegu politikatik eta politikariengandik? Posible al da oraindik ere demokrazian sinestea eta demokrazia indartzeko zerbait egitea?¹

1.3. Espainian krisi politiko bat dago, nagusiki egoera ekonomikoaren eta ustelkeriaren ondorioz, baina baita parte-hartze ahularen eta alderdi-sistema motaren ondorioz ere, eta krisi hori sekulako mailara iritsi da. Premiazkoa da hauteskudeen legea berrikustea, bai eta Konstituzioa erreformatzea ere. Eta oso-oso beharrezkoa da Estatuaren egituraketari buruzko 8. kapitulua berrikustea.

1.4. Euskal Herrian, demokrazia hobetzeko aukera nabarmenak daude: erabakiak herritarrengana hurbiltzea, autogobernu sakontzea, eta autogobernuak ematen

¹ www.un.org/es/events/democracyday/pastobs.shtml

dituen aukerez baliatzea gizarte zibilak politika publikoak proposatzen, diseinatzen, gauzatzen eta kontrolatzen parte-hartze handiagoa izateko.

1.5. Irailaren 15 honetan, 2013ko Demokraziaren Nazioarteko Eguna dela eta, Nazio Batuek goiburu positibo eta deigarriago bat aukeratu dute: “Indartu demokraziaren ahotsak”. Egun horren helburua da azpimarratzea “zeinen garrantzitsua den herriaren ahotsa eztabaida politiko, ekonomiko, sozial eta teknologikoetan eta garapenari buruzko eztabaidetan, bai zuzenean adierazten denean, bai eta hautetsitako ordezkarien bidez adierazten denean ere. Horixe da, hain zuzen ere, demokraziaren muina: herriak bere ahotsa adierazteko ahalmen hori izatea, nola gobernatua izan nahi duen erabakitzeke”.²

1.6. Adierazpen honen bidez, UNESCO Etxeak ahalegin horretan lagundu nahi du, babesa emateko dituen aukera xumeen barruan, baina, era berean, ziur egonik pertsona eta erakunde bakoitzak dagokion tokian jardun eta ekin behar duela.

1.7. Nazio Batuek aipatutako testuan adierazi duten moduan, uste dugu arlo politiko, ekonomiko, sozial, teknologiko, artistiko eta kulturaletan eta garapen-arloetan parte hartzearen jarduera zabal eta konplexua dela demokrazia.

1.8. Uste dugu parte-hartze hori bai ordezkariak hautatuz eta bai herritarrek beraiek zuzenean ekinez gauzatzen dela. Kontua ez da arlo publikoari erantzukizunak kentzea, baizik eta gu ere erantzule bihurtzea. Eta gure nahia da gizartearen edo herritarren parte-hartze hori tokian tokiko erronketan nahiz nazioarteko erronketan gauzatzea aldi berean.

1.9. Ez dugu adierazi nahi gutako bakoitza indar boteretsu eta kontrolaezinen biktima besterik ez denik. Bestelako irudia zabaldu nahi dugu eta azpimarratu nahi dugu pertsona ere eragile erantzulea dela, eta gai dela modu eraginkorrean lan egiteko bere ingurunea eta mundua aldatzeko zereginean. Batez ere, gizaki bakoitza sortzeko gai dela.

1.10. Demokrazian sakondu nahi dugu, erakundeek giza garapena susta dezaten eta pertsonen askatasuna eta duintasuna babes dezaten.

II. PARTE-HARTZEA

2.1. Une honetan, beharrezkoa da pertsonak eta herriak ez egotea zain, zerbaitek edo norbaitek gauzak noiz aldatuko, ez egotea gauzak lehen bezala izateko zain, ez egotea denboraren joanak gu krisitik ateratzeko zain. Uneotan, beharrezkoa da pertsonen eta

² www.un.org/es/events/democracyday

herriek jakitea gutako bakoitzaren eta guztion ahalegina eta ekimena dela aurrera egiteko modu bakarra.

2.2. Tokiko eta munduko gaietan parte hartzeko kultura bat sustatu behar dugu. Sistemarekin gustura ez dauden gizarte-mugimenduen artean sortutako “bai, posible da” oihuak balio digu: bai, posible da testuingururik hurbilenean nahiz mundu osoan gauzak aldatzen lan egitea. UNESCO Etxearen esperientziak, bai eta beste hainbat erakunde eta pertsonarenak ere, posible dela erakusten digu.

2.3. Ez da nahikoa erakundeei botatzea parte-hartze ahularen errua, ez eta erakundeek parte-hartzea dinamizatu arte itxarotea ere. Kontraesan bat izango litzateke. Herritarrak ahalegin bat egitera bultzatu behar ditugu, eta estamentu publikoei parte-hartze hori sustatzea eta kontuan hartzea eskatu behar diegu. Esku hartzeko, beharrezkoa da ongi informatuta egotea eta errealitatea oso ongi ezagutzea.

2.4. Ez gaude prest tokian bertakoaren edo mundu osokoaren artean aukeratu behar izateko. Ez gaude prest ez tokian bertakoaren garrantziaz ahazteko, ez eta mundu osoan jarduteko benetako aukerak gutxiesteko ere. Herritarrok parte hartzeko ditugun espazioak tokian bertatik edo udalerritik hasten dira eta parte-hartze unibertsaleraino edo globaleraino iristen dira.

2.5. Nazio Batuen Batzar Nagusiak Kulturak Elkarrengana Hurbiltzeko Nazioarteko Hamarkada (2013-2022)³ aldarrikatu zuen. Aldarrikapen horrek azpimarratzen du beharrezkoa dela alde eta eragile guztiak parte hartzea, parte-hartze orekatu eta barne-hartzaile baten bidez, gizadiaren balio komunak ulertzeko, eta, hartara, bakearen kultura bat sustatzeko tokian bertan nahiz mundu osoan.

2.6. Era berean, nazioartea 2015 Ondorengo Agenda⁴ sortzen ari da, eta tokian tokiko ekarpenak ere hartu beharko ditu kontuan Agenda horrek, Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko azken data igaro ondoren zer erronka global berri dauden identifikatu ahal izateko.

2.7. Ezin dugu espero Estatuak erantzun eta baliabide guztiak ematea, eta, beraz, gizarteak gai izan behar du arlo sozial eta kulturaletan ekimenak sustatzeko, parte-hartzearen, boluntariotzaren, mezenasgoaren, asoziazionismoaren edo beste formula batzuen bidez. Espazio horiek aberasteko modu berriak imajinatze eta gure sormena sustatzeko unea da. Boluntarioen lana goratu eta duindu behar dugu. Ez dugu bigarren mailako lan txiki moduan hartu behar; horren ordez, helburu garrantzitsuak jarri behar dizkiogu, modu jarraituan aritu behar dugu eta, paradoxa bada ere,

³ UNESCO (2013). *International Decade for the Rapprochement of Cultures (2013-2022)*. CL/4021. <http://unesdoc.unesco.org/images/0022/002211/221198e.pdf>

⁴ www.un.org/es/development/desa/area-of-work/post2015.shtml

"profesionaltasunez" aritu behar dugu kulturaren, hezkuntzaren, gizartearen, ekonomian eta ingurumenaren.

2.8. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du bere parte hartzeko espazioak eta boluntariotzarako espazioak hobetzeko; boluntarioen, profesionalen eta erakunde hau kudeatzeaz eta gobernatzeaz arduratzen diren bazkideen parte-hartzearen bikaintasuna bermatzeko; eta gizarte zibilak estatuko nahiz mundu osoko UNESCO Komunitatean parte har dezan sustatzeko eta eskatzeko.

2.9. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du parte-hartzearen eta boluntariotzaren kultura berri baten alde lan egiten duten espazioetan parte hartzeko, batez ere zenbait politika eta arau publiko hobetzen; adibidez, Hirugarren Sektorearen Legea, Boluntariotzaren Legea, Mezenasgoaren Legea eta horien aplikazioa.

2.10. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du tokian bertan nahiz nazioartean modu aktiboan parte hartzeko nazioartean 2015 Ondorengo Agenda sortzen, bai eta Nazio Batuek izendatutako Kulturak Elkarrengana Hurbiltzeko Nazioarteko Hamarkada emankorra izan dadin eta bakearen kultura sustatuko duten emaitzak ekar ditzan lortzen ere.

III. HEZKUNTZA

3.1. Joan den urtean, Nazio Batuen idazkari nagusiak gogorarazi zigun demokrazia hobetzeko elementu funtsezkoa dela demokraziarako hezkuntza. "Beharrezkoa da herrialde guztietako herritar guztiak erabat kontziente izatea zer eskubide eta erantzukizun dituzten, bai demokrazia zaharretakoak bai berrietakoak, edozein dela ere demokrazia horien egonkortasun edo ahultasun maila. Eta bereziki beharrezkoa da demokraziarako aurrerapausoak orain dela gutxi lortu dituzten herrialdeetan, emandako urrats horiek alferrik gal ez daitezen."⁵

3.2. Honela dio Demokraziaren Adierazpen Unibertsalaren proposamenak: "Demokrazia iraunkorra izango bada, funtsezkoa da kulturatzat hartzea eta maila pertsonalean, instituzionalean eta kolektiboan errotutako eguneroko jokabideetatulertzea"⁶. Ezinbestekoa da, beraz, hezkuntzaren bidez etengabe elikatu eta aberastutako kultura demokratikoa izatea. "Gizarte demokratiko batek, horrenbestez, hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatu eta gauzatu behar du, terminoaren adierarik zabalenean: gizaki libreak eta arduratsuak landu behar ditu, beren gogoeten arabera

⁵ NAZIO BATUAK. Idazkari Nagusia (2012). *Idazkari Nagusiaren mezua, Demokraziaren Nazioarteko Egunean*. www.un.org/es/events/democracyday/2012/sgmessage.shtml

⁶ CULTURA DE PAZ FUNDAZIOA. *Demokraziaren Adierazpen Unibertsala*. 21. art. 21.1 paragrafoa www.fund-culturadepaz.org/declaracion/Declaracion_Universal_Democracia.pdf

jarduteko gai izango diren pertsonak. Izaten, jakiten, egiten, ekiten eta elkarrekin bizitzen ikasi behar da demokrazian. Eta ikasteko prozesuan, bereziki aintzat hartu behar dira hezkuntza filosofikoa eta artistikoa, pentsamenduaren eta sormenaren erabateko erabilera bermatzeko, horiek baitira giza espeziea bereizten duten ahalmenak; eta aintzat hartu behar dira, orobat, hezkuntza fisikoa eta gizartean parte hartuko duen herritar izateko prestakuntza, horren guztiaren oinarrian ikuspegi hau dela: hezkuntzak guztiontzat izan behar du eta bizitza osorako.”⁷

3.3. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du hezkuntza eta prestakuntza arloan egiten duen lana (ikastaroak, ikastetxeekin lankidetzan jardutea, eragileak prestatzea) mantentzeko eta indartzeko, 2013-2016ko EAEko Bake eta bizikidetzaren planaren testuinguruan bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzari arreta berezia jarrita⁸.

IV. GARDENTASUNA

4.1. Ustelkeria da gure garaiotako kezkarik handienetakoa. Traba handia da herritarren moralerako eta politikaren duintasunerako eta ekonomiarako. Ustelkeriaren kontrakoa ez da soilik ustelkeriarik ez izatea edo ustelkeria-eza, sistema zabalago eta konplexuagoa baizik: gardentasuna eta kontuak ematea. Alde horretatik, txalotzekoa iruditzen zaigu Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren ekimena, txosten bat prestatzen ari baita ustelkeriak Giza Eskubideen gozamenean sortzen dituen ondorio kaltegarriak buruz. Giza Eskubideen Batzordeak eta horren organo laguntzaileek gai hori nola aztertu behar duten argitzeko gomendioak jasoko ditu txosten horretan, Batzordearen 23/9 ebazpenari jarraituz⁹.

4.2. Ustelkeria gertatzeko arriskuak murrizten ditu gardentasunak, eta gertatzen denean erantzun egokia emango zaiola bermatzen du.

4.3. Gardentasuna behar dugu erakunde publikoetan, zalantzarik gabe, baina baita alderdian, sindikatuetan, enpresaburuen elkarteetan eta gizarteko elkarte orotan ere. Oro har, gardentasunaren estandar hobeak eskatu behar dizkiegu gutxienguzkienez, bide batetik edo bestetik, diru publikoa nahiz pribatua jaso edo kudeatzen duten erakunde guztiei.

⁷ CULTURA DE PAZ FUNDAZIOA. *Demokraziaren Adierazpen Unibertsala*. 21. art. 21.3 paragrafoa
www.fund-culturadepaz.org/declaracion/Declaracion_Universal_Democracia.pdf

⁸ EUSKO JAURLARITZA. Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza (2013). *Proposamena. 2013-2016ko Bake eta bizikidetzaren plana. Gizartea elkartzea helburu*.
http://www.irekia.euskadi.net/assets/a_documents/3196/bake_eta_bizikidetzaren_plana.pdf?1370937624

⁹ NAZIO BATUAK. Giza Eskubideen Batzordea (2013). *Ustelkeriaren ondorio kaltegarriak giza eskubideen gozamenean*. A/HRC/RES/23/9
<http://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G13/149/75/pdf/G1314975.pdf>

4.4. Erakundeetan gardentasuna behar da finantzen arloan, diru-sarrera eta gastuetan, kontratazioetan, baina baita izendapenetan, gobernatzeko moduetan, prozeduretan eta erabakiak hartzeko moduan. Justiziak zorrotz jokatu behar du gizalegez jarduten ez dutenekin edo legez kontra jokatzen dutenekin.

4.5. Gardentasuna behar dugu alderdien sisteman, eta, beraz, alderdien beste lege bat behar dugu, herritarren parte-hartzea, publikitatea, kargudunen eta herritarren arteko harreman zuzenagoa bermatzeko, eta alderdiek erabaki ekonomikoak zein politikoak hartzen dituztenean erantzukizuna ere beren gain hartzen dutela ziurtatzeko.

4.6. Gardentasunaz ari garela, sarri askotan ahaztu egiten ditugu sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak. Alde horretatik, sindikatu eta enpresaburuen elkarteek zorrotz jokatu behar dute gizarteari kontuak ematerakoan, eta hori exijitzeko tresnak eskatzen ditugu.

4.7. Justiziak zorrotz jardun behar du legez kanpo edo gizalegearen kontra jokatzen dutenekin.

4.8. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du gardentasunezko estandar onenak izateko eta, erakundearen izaera eta neurria aintzat harturik, dauden parametroen artean egokienarekin neurtzeko estandar horiek. UNESCOren gizarte zibileko erakunde guztiei ere gauza bera egiteko eskatzen diegu; eta UNESCOren instantzia guztiei eskatzen diegu susta dezatela, dinamiza dezatela eta kontrola dezatela gardentasun hori, eta har ditzatela hartu beharreko neurriak, beharrezkoa denean. UNESCOren ospea babestu behar dugu, are gehiago garaiotan, erakundeak bere misioa betetzeko gure laguntza osoa behar duenean.

4.9. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du emaitza onak balioan jartzeko, erakunde bakoitza gobernatzen duen entitatearen edo alderdi politikoaren neurria edozein dela ere, eta, era berean, emaitza txarrak gaitzesteko. Horretarako, euskal erakunde publikoei dei egiten diegu Nazioarteko Gardentasun neurketak edo antzekoak aplikatzatzen¹⁰.

V. ETIKA ETA BALIOAK

5.1. Krisiak erakutsi du ezin ditugula ekonomia eta balioak bereizi, ezta politika eta etika ere. Uztarri berekoak dira bi-biak. Etika publiko eta sozialak erakundeen eraikuntzaren oinarrian egon behar du, baita haien garapenean eta jardunean ere. Balioen lengoaia berreskuratu behar dugu eta neurgailuen eta kontrolen bidez ezarri.

¹⁰ www.transparencia.org.es

5.2. Eusko Jaurlaritzan Kode etikoa eta jokabideari buruzkoa sortu izana txalotzen dugu¹¹ eta gainerako erakundeak antzeko sistemak aplikatzera animatzen ditugu, neurgailu iraunkorrak finkatuz eta, kodeak betetzen ez badira, ondorio zorrotz eta zehatzak ezarriz.

5.3. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du Plan Estrategikoan finkatu diren balioak babesteko eta garatzeko, bai eta zenbateraino betetzen diren neurtzeko ere. Alde horretatik, urtero emango ditu argitara emaitzak.

VI. EKONOMIA ETA ENPRESA

6.1. XIX. eta XX. mendeetako enpresaren ikuspegi klasikoa jada ez dator bat gaur egungo erronkekin. Izan ere, hartan, argi eta garbi zeuden berezita kapitala eta lan-indarra, eta aurkako interesak egoten ziren “zero baturako” puntua lortzeko (hau da, batek gehiago irabazteko besteak zerbaitetan amore eman behar zuen). Era berean, enpresak garai berrietara egokitu behar dira, bai eta langileak eta sindikatuak ere.

6.2. Kudeaketan nahiz emaitzetan langileek duten partaidetzaren alorrean berrikuntzak egiten dituzten enpresa gehiago behar ditugu; hau da, langileen prestakuntza hobea, inplikazioa eta ekarpena kontuan hartzen dituzten sistemak behar ditugu. Formula batek, pixkanaka-pixkanaka egokituz gero, nazioarteko partzuergo handi eta insolidarioak neutralizatuko ditu hein handi batean: lankidetzak, hain zuzen ere.

6.3. Ingurunearekin gero eta erantzukideagoak diren enpresak behar ditugu. Horretarako, gizarte-erantzukizunak funtsezko elementua izan behar du (eta beraz, ez azalekoa) enpresa bakoitza eta haren etorkizuna ulertzeko moduan. Hau da, enpresen gizarte-erantzukizunak funtsezkoa eta zeharkakoa izan behar du, eta ez gehigarri bat bakarrik. Enpresen erantzukizuna, batik bat, etorkizuneko belaunaldietan proiektatu behar da, ingurumena behar bezala zain dezaten bilatuz. Zigor gogorragoak jarri behar zaizkie ekologiaren kalitateari zuzenean kalte egiten dieten teknikak erabiltzen dituztenei.

6.4. Enpresarekin eta haren arrakastarekin erantzukide diren langileak eta sindikatuak behar ditugu, enpresaren martxa egokia izan dadin eta arrakasta hori langileena eta ingurukoena ere izan dadin.

6.5. Gizarte-enpresen espektroa zabaldu behar dugu, haien forma juridikoak eta kudeaketa- eta partaidetza-formak berritu behar ditugu, eta gizartean duten eragina

¹¹ EUSKO JAURLARITZA. Herri Administrazio eta Justizia Saila (2013). *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakundeetako kargudun publikoen eta behin-behineko langileen etika eta jokabide kodea*. www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/3130/Codigo_Etico_28-05-2013.pdf

handitu behar dugu. Behar-beharrezkoa da espekulazioan, produkzioaren deslokalizazioan eta gerran oinarritutako ekonomia alde batera uztea, eta mundu mailako garapen iraunkor eta gizatiarrean oinarritutako ekonomiari heltzea. Ekonomia oro har eta esportazioak bereziki ez dira haziko baldin eta ez bada gero eta gehiago inbertitzen I+G+B alorrean.

6.6. Administrazioari eskatzen diogu zenbait mekanismo prestatzeko, gizarte-enpresa horietako kontratuen, zerbitzuen eta erosketen konkurrentzian aukera-berdintasuna bermatuta egon dadin.

6.7. Nabarmendu nahi dugu gizarte-enpresek asko laguntzen dutela egoera txarrean dauden sektoreak eta zailtasunak dituzten taldeak gizarteratzen. Aipamen berezia merezi dute ahalmen-urritasunen bat duten pertsonak integratzen urte mordoa daramaten enpresak.

6.8. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du gutxienez proiektu bat egiteko gizarte-ekonomiarekin loturik edo gizarte-ekonomiako erakunde eta enprekin batera.

6.9. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du lan-talde eta sareetan parte hartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiaren legea sortze aldera.

VII. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

7.1. Gizateriaren erronka handiei aurre egiteko behar-beharrezkoak dira zientzia eta teknologia. Baina, gure ustez, zientzia eta teknologia, bere horretan eta haiek baliatuko dituen gizarteari lotu gabe, ez dira helburu bat. Puntako zientzia eta teknologia nahi ditugu, bikainak, ingurunearekin erantzukizunez jokatzeko dutenak eta gizartearekin lotura dutenak. Zientziak eta teknologiak bakea bidezkoa eta iraunkorra izaten lagundu behar dute, bai eta giza eskubideak mundu mailan betetzen ere.

7.2. Ikertzaileak askeak izan daitezten nahi dugu, baina baita ere partaidetza demokratikoa izan dadin arriskuak eta onurak aztertzean, eta baliabideak eta lehentasunak erabakitzean. Horretarako, prestakuntza zientifiko eta teknologiko hobea duten herritarrak behar ditugu.

7.3. Zientziak eta teknologiak giza premiei eta gizateriaren erronka handiei (elikadura, ura, osasuna, ingurumena, hezkuntza, bakea) lehentasuna eman diezaieten nahi dugu.

7.4. Urteotan gure UNESCO Katedrek¹² egindako lan zientifiko goraipatu nahi dugu, batik batik lan hori gizartera helarazteagatik eta lanaren egokitasunagatik.

¹² Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
www.ehu.es/cdsea

Nabarmentzeko modukoak dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eta hizkuntza-lankidetzaren inguruan egindakoak. Era berean, azpimarratzekoa izan da Lurralde, Paisaia eta Ondareari buruzko UNESCO Katedraren sorrera.

7.5. UNESCO Etxeak alor honetako lana sendotzeko konpromisoa hartzen du, dibulgazio eta hezkuntza zientifikoko lanetan lagunduz. Halaber, konpromisoa hartzen du, gutxienez, Zientziarako eta Teknologiarako Eskubidearen inguruko nazioarteko proiektu handi batean parte hartzeko NBEren esparruan¹³, edo garapenerako zientzia sustatzeko UNESCOren esparruan¹⁴.

VIII. ZERBITZU PUBLIKOAK, GIZA ESKUBIDEAK ETA HERRITARREN ERANTZUKIZUNA

8.1. Geure buruari galdetu beharko genioke ea zerbitzu publikoek beren gain hartutako guztiak publiko izaten jarraitu beharko lukeen. Argi eta garbi ezarri behar dugu zein diren gutxieneko zerbitzu utziezinak, Giza Eskubideek (bereziki ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) eta zuzentasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako printzipioek barne hartutakoak, eta zein diren horietan barne hartuta ez daudenak. Modu demokratikoan eta denok parte hartuz egin behar dugu lan hori.

8.2. Zerbitzu publikoak epaitzeko garaian, ez dugu inbertsioa soilik hartu behar kontuan. Beste bi irizpide dira, batez ere, aintzat hartu beharrekoak: emaitzak eta zerbitzuak, bereziki zuzentasunari eta unibertsaltasunari dagokienez. Horretarako, administrazioek eraginkorrakoak izan behar dute, eta zuzenbide- eta lan-sistemak modernizatu behar dituzte.

8.3. Gizarte-erakundeek, unibertsitateek eta teknologia-zentroek, diru-laguntzak eta inbertsioak eskatzeaz gain, beste ardura batzuk ere hartu behar ditugu gure gain: proposamen sozialen gidari izatea, kontuak ematea, gure eraginkortasuna hobetzea eta gutxiagorekin gehiago ematea, hain zuzen.

8.4. Zerbitzu publikoetan ere badago partaidetzarako, boluntariotzarako eta herritarren erantzukizunerako tartea, betiere horien kalitatea alde batera utzi gabe. Komunitate zientifikoak, akademikoak, artistikoak, literarioak, kazetaritzakoak eta sozialak herritarren mobilizazioaren abangoardian egon behar dute, demokrazia parte-hartezkoago eta arduratsuago berri bat lortze aldera.

Munduko Hizkuntza Ondarearen UPV/EHUko UNESCO katedra.
www.unesco-hizkuntza-katedra.ehu.es

¹³ www.ohchr.org/EN/Issues/CulturalRights/Pages/Seminars.aspx

¹⁴ www.unesco.org/new/es/natural-sciences/about-us/how-we-work/mission-strategy

8.5. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du guztiok Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak (EESK) izan ditzagun lan egiteko, Nazio Batuetako EESK Batzordearekin lankidetzan arituz eta EESKen inguruan, gutxienez, proiektu bat burutuz.

8.6. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du EESKen inguruko nazioarteko estandar hoberenak gure herrialdera ekartzeko, gurean eskubide horiek ondo gobernatzen laguntze aldera. Halaber, konpromisoa hartzen du eskubide horietako baten garapenean parte hartzeko (hezkuntza, osasuna, etxebizitza...), euskal eragile politiko eta sozialekin batera.

IX. DEMOKRAZIAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

9.1. Demokrazia ez zen aintzat hartu Nazio Batuen Gutunaren¹⁵ baitan sisteman sartzeko baldintzatzat; are gehiago, erakundearen beraren helburuen artean ere ez zen kontuan hartu.

9.2. Iritsi da garaia Nazio Batuen Gutunean edota akordio eta hitzarmen lotesleetan demokrazia baldintzatzat sartzeko, bai suspertzen ari diren eta garapenean dauden herrialdeetarako, bai Nazio Batuen beraren barne-antolamenduaren demokratizaziorako.

9.3. Era berean, egitura politikoen demokratizazioa bultzatu nahi dugu, eta beste herrialde batzuekiko EBn hartzen diren erabakietan ere demokratizazioa sustatuko dugu. Europar Batasunean, Oinarrizko Eskubideen Gutuna¹⁶ nabarmendu behar dugu, bikaina, zinez, baina zoritxarrez eskubide horien justiziabilitatea falta da, eta ez da halakorik izango harik eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiari eskumena aitortzen zaion arte. Diru-batasuna ekonomia- eta politika-batasunaren aurretik egon da Europan, modu desegokian. Bestalde, NATOren bidez gauzatzen den segurtasun-arloa ez da autonomia, mendekoa baizik. Eta noski, arlo hori ere ahalik azkarren zuzendu behar da.

9.4. Egun, badakigu erronka globalei aurre egin ahal izateko, ezinbestean, elkartu egin behar dugula, eta beste gobernantza-eredu global bat ezarri, tokian tokiko gobernu egokia oinarritzat izango duena.

¹⁵ NAZIO BATUAK (1945). *Nazio Batuen Gutuna*.
www.un.org/es/documents/charter

¹⁶ EUROPAR BATASUNA (2000). *Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna*.
www.europarl.europa.eu/charter/pdf/text_es.pdf

9.5. Autogobernu-prozesuek demokrazia eta desberdinen arteko akordioa izan behar dituzte oinarri; hala, autogobernurako akordio demokratikoak aurrez hitzartutako gehiengo kualifikatuz egin behar dira, gutxiengoek une oro beto-eskubidea baliatzeko aukerarik izan ez dezaten.

9.6. Demokraziari buruzko akordio bat egin behar dugu; esaterako, Federico Mayor Zaragoza eta Karel Vasak goi-funtzionarioek egindako proposamena: Demokraziaren Adierazpen Unibertsalaren proiektua (*La Declaración Universal de la Democracia*)¹⁷. Bertan, demokraziaren alderdi guztiak hartu dira aintzat: alderdi etikoa, soziala, ekonomikoa, kulturala eta nazioartekoa.

9.7. Horregatik barneratu eta babestu dugu Demokraziaren Adierazpen Unibertsal hori; zehazki, honela dio: “demokrazia erregimen politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta internazional bat da, eta balio hauetan oinarritzen da: eskubide eta betebeharrak banaezinak dituen pertsonaren errespetua, justiziaren eta zuzenbidearen gorentasuna eta independentzia, eta pertsona orok bizitzan eta gizartearen garapenean askatasunez eta bakean parte hartzeko duen aukera, gizaki guztien duintasunaz eta elkarrekiko mendetasunaz jabeturik, eta ingurune kultural eta natural egoki batean. Bestalde, demokrazia ekonomikoaren alderdi guztiak justizia sozialaren mende egon behar dira”¹⁸.

9.8. Funtsezkoa da botere legegilearen, judizialaren eta exekutiboaren arteko independentzia; izan ere, une honetan, sarri, gobernuak agintzen dute hiru botere horien gain, baita demokrazia formaletan ere.

9.9. Ildo horretan, Demokraziaren Adierazpen Unibertsala Euskal Herrian sustatzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartzen du UNESCO Etxeak, Fundación Cultura de Paz fundazioarekin elkarlanean.

ERANSKINA

X. UNESCO ETXEAREN HAMAHIRU KONPROMISOAK

Parte-hartzearen esparruan:

10.1. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du bere parte hartzeko espazioak eta boluntariotzarako espazioak hobetzeko; boluntarioen, profesionalen eta erakunde hau

¹⁷ CULTURA DE PAZ FUNDAZIOA (2013). *Demokraziaren Adierazpen Unibertsala*.
www.fund-culturadepaz.org/declaracion/Declaracion_Universal_Democracia.pdf

¹⁸ *Ibidem*. I. artikulua. 8. orrialdea.
www.fund-culturadepaz.org/declaracion/Declaracion_Universal_Democracia.pdf

kudeatzeaz eta gobernatzeaz arduratzen diren bazkideen parte-hartzearen bikaintasuna bermatzeko; eta gizarte zibilak estatuko nahiz mundu osoko UNESCO Komunitatean parte har dezan sustatzeko eta eskatzeko.

10.2. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du parte-hartzearen eta boluntariotzaren kultura berri baten alde lan egiten duten espazioetan parte hartzeko, batez ere zenbait politika eta arau publiko hobetzen; adibidez, Hirugarren Sektorearen Legea, Boluntariotzaren Legea, Mezenasgoaren Legea eta horien aplikazioa.

10.3. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du tokian bertan nahiz nazioartean modu aktiboan parte hartzeko nazioartean 2015 Ondorengo Agenda sortzen, bai eta Nazio Batuek izendatutako Kulturak Elkarrengana Hurbiltzeko Nazioarteko Hamarkada emankorra izan dadin eta bakearen kultura sustatzen duten emaitzak ekar ditzan lortzen ere.

Hezkuntzaren esparruan:

10.4. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du hezkuntza eta prestakuntza arloan egiten duen lana (ikastaroak, ikastetxeekin lankidetzan jardutea, eragileak prestatzea) mantentzeko eta indartzeko, 2013-2016ko EAEko Bake eta bizikidetzaren planaren testuinguruan bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzari arreta berezia jarrita¹⁹.

Gardentasunaren esparruan:

10.5. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du gardentasunezko estandar onenak izateko eta, erakundearen izaera eta neurria aintzat harturik, dauden parametroen artean egokienarekin neurtzeko estandar horiek. UNESCOren gizarte zibileko erakunde guztiei ere gauza bera egiteko eskatzen diegu; eta UNESCOren instantzia guztiei eskatzen diegu susta dezatela, dinamiza dezatela eta kontrola dezatela gardentasun hori, eta har ditzatela hartu beharreko neurriak, beharrezkoa denean. UNESCOren ospea babestu behar dugu, are gehiago garaiotan, erakundeak bere misioa betetzeko gure laguntza osoa behar duenean.

10.6. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du emaitza onak balioan jartzeko, erakunde bakoitza gobernatzen duen entitatearen edo alderdi politikoaren neurria edozein dela ere, eta, era berean, emaitza txarrak gaitzesteko. Horretarako, euskal erakunde publikoei dei egiten diegu Nazioarteko Gardentasun neurketak edo antzekoak aplikatu ditzaten²⁰.

¹⁹ EUSKO JAURLARITZA. Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza (2013). *Proposamena. 2013-2016ko Bake eta bizikidetzaren plana. Gizarte elkartzea helburu*. http://www.irekia.euskadi.net/assets/a_documents/3196/bake_eta_bizikidetzaren_plana.pdf?1370937624

²⁰ www.transparencia.org.es

Etika eta balioen esparruan:

10.7. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du Plan Estrategikoan finkatu diren balioak babesteko eta garatzeko, bai eta zenbateraino betetzen diren neurtzeko ere. Alde horretatik, urtero emango ditu argitara emaitzak.

Ekonomiaren eta enpresaren esparruan:

10.8. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du gutxienez proiektu bat egiteko gizarte-ekonomiari buruz edo gizarte-ekonomiako erakunde eta enpresekin batera.

10.9. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du lan-talde eta sareetan parte hartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiaren legea sortze aldera.

Zientziaren eta teknologiaren esparruan:

10.10. UNESCO Etxeak alor honetako lana sendotzeko konpromisoa hartzen du, dibulgazio eta hezkuntza zientifikoko lanetan lagunduz. Halaber, konpromisoa hartzen du, gutxienez, Zientziarako eta Teknologiarako Eskubidearen inguruko nazioarteko proiektu handi batean parte hartzeko NBERen esparruan²¹, edo garapenerako zientzia sustatzeko UNESCOren esparruan²².

Zerbitzu publikoak, giza eskubideak eta herritarren erantzukizunaren esparruan:

10.11. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du guztiok Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak (EESK) izan ditzagun lan egiteko, Nazio Batuetako EESK Batzordearekin lankidetzan arituz eta EESKen inguruan, gutxienez, proiektu bat burutuz.

10.12. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du EESKen inguruko nazioarteko estandar hoberenak gure herrialdera ekartzeko, gurean eskubide horiek ondo gobernatzen laguntze aldera. Halaber, konpromisoa hartzen du eskubide horietako baten garapenean parte hartzeko (hezkuntza, osasuna, etxebizitza...), euskal eragile politiko eta sozialekin batera.

Demokraziaren Adierazpen Unibertsalari dagokionez

10.13. UNESCO Etxeak konpromisoa hartzen du Demokraziaren Adierazpen Unibertsala²³ Euskal Herrian sustatzeko eta zabaltzeko, Fundación Cultura de Paz fundazioarekin elkarlanean.

²¹ www.ohchr.org/EN/Issues/CulturalRights/Pages/Seminars.aspx

²² www.unesco.org/new/es/natural-sciences/about-us/how-we-work/mission-strategy

²³ CULTURA DE PAZ FUNDAZIOA (2013). *Demokraziaren Adierazpen Unibertsala*. www.fund-culturadepaz.org/declaracion/Declaracion_Universal_Democracia.pdf

Bilbon, 2013ko irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean.

Adierazpena ohorezko bazkide hauek sinatu dute:

Federico Mayor Zaragoza Jn.

Félix Martí Jn.

Txomin Bereciartua Jn.

Adierazpena izenpetu dute ohorezko bazkide hauek

Daniel Innerarity Jn.

Carlos Fernández Jaúregui Jn.

Juana Carro And.

Joaquín Achúcarro Jn.

Silvia Escobar And.

UNESCO Etxearen ordezkariak:

Ruper Ormaza Jn.

Mikel Mancisidor Jn.